

# ⇒ Hizpide ⇒

Didaktismoa, pedagogia eta eduki ideologikoen eragina 90-eko hamarkadako haur literaturan

KIKO RUIZ HUICI



Luis Alonso

Jarraian irakur daitekeen artikulua, nire tesiaren konklusioen artean kokatu behar da. Ikerketa honek *Análisis de narraciones infantiles para niños de 6-12 años, escritas en castellano entre 1990-98* izenburua du eta bertan 150 haur narrazioen azterketa kritiko-literarioa egiten dut.

Azterketa literario horren barruan, eta haur literatura aztertzen ari naizela kontuan hartuz, 90 hamarkadako haur narrazioetan agertzen diren zenbait ezaugarri ideologiko aztertu ahal izateko atal psikopedagogiko eta ideologiko espezifikoa ezarri nuen. Beraz, atal ideologiko eta pedagogiko honetako datu guztiak aztertu ondoren, hauek dira, ene ustez, ontzat eman daitezkeen konklusioak.



Luis Alonso

***1. Egokitzapenaren printzipio absolutoa: haur narrazioen ezaugarria ala sorkuntzarako oztopo?***

Ikuspuntu psikopedagogiko orokor batetik ikusita, eta gure ikerketaren datuak aztertu ondoren, gaur egungo haur narrazioak definitzen dituen ezaugarri nagusi bat azpimarratunahi dugu: egokitzapenaren printzipio omnipresentea. Autore batzuek argi eta garbi uzten dute zertan datzan egokitzapena estilistikoa eta irakurketa errazteko egin ohi diren moldaketak. TUCKER ek, esaterako, zera dio: ... los niños en general parecen preferir un estilo que no presente demasiadas dificultades, que utilice un alto porcentaje de discurso directo y un vocabulario menos complejo (TUCKER, 1985:31). Moldaketa estilistikoa agertzeaz gain, irakurle gazteek beste eratako adaptazioak eskatzen dituzte, hain zuzen ere,

gaia aukeraketari berari edo gaiaren beraren tratamenduari dagozkionak:

*Por ejemplo, las novelas que tratan de experiencias relativas principalmente a los adultos no atraerán a los lectores jóvenes si estas experiencias están derivadas en forma adulta.* (TUCKER, 1985: 35)

Hau dela eta, egokitzapenaren printzipioa, haur narrazioen izakera bera seriooki baldintzatuz, gaur egungo haur narrazioetan indartsu agertzen dela esan daiteke. Nire ikerketan zehar behin baino gehiagotan aipatu ditudan ezaugarri estilistiko eta literarioak, irakurketa errazteko egiten diren moldaketa anitz hauetan sustatzen dira. Ezaugarri horien artean, multzo haundi bat, haur irakurleen gustuetatik eta preferentzietatik, argialetxeen orientabideetatik eta interesetatik, edota haur literaturaren merkatuaren dinamikatik azaltzen eta ulertzen dira. JANER MANILAK

esaten duenez, haur irakurleak ezartzen dituen moldaketak egiteko joera orokor hau da, gaur egungo haur literatura hobekien karakterizatzen duen ezaugarria:

*Sovint, es delineix la litaraura infantil en relació amb el destinatari de la creació literària. L'especificitat del nin és la tesi que fonamenta l'existència d'un corpus literari dirigit a satisfer, des de l'optica de l'adult, les necessitats d'un públic que condiciona la creació; pero es tracta d'una creació pretesament educativa: amb voluntat de transmetre uns valors morals i de tractar els temes que ham considera adequats a la inconmovible especificitat del nin.* (JANER MANILA, 1995: 115)

Hain berezia den haur irakurleak kontuan hartuta, logikoa dirudi arestian aipatu dugun egokitzapenerako joera horri hainbeste garrantzia ematea. Hala eta guztiz ere, irakurketa errazteko, testuen ulermena hobetzeko edo haur irakurleen zaletasunari eta preferentziei lotzeko egiten diren moldaketak onuragarriak direla onarturik, joera hau arau orokorra eta ezinbestekoa bihurtzen denean, haur narrazioak larriki pobretzen dira. Egokitzapenaren aurreritzi honek ezartzen duen normatibidadeak, merkatuen beharretara egokitua eta sortzaileen askatasunaren oztopo bilakatu, narrazioen nortasun partikularra ezabatzen du, nolabaiteko homogeneitatea sortuz.. Aldi berean, narrazio hauen guztien kalitate literarioa ere galdu egiten da. Zentzu honetan, oso adierazgarriak dira MORENOren hitzak:

*Según suponen algunos críticos, el autor puede perder su libertad en el momento creativo, pues ¿acaso se puede escribir pensando en el tipo de lector? Y en este supuesto, ¿qué resulta?, ¿literatura o pedagogía?* (MORENO VERDULLA, 1998: 12)

Azken batean, haur irakurleari begiratzen dituen moldaketa hauek dira, hobeto azaltzen duten gaur egungo haur narrazioen uniformitate estilistikoa, narrazio hauek *eskola literario* baten fenomeno bat bihurtuz. Badirudi haur narrazioen mundua, «canon literario» baten bila doanean,

ezaugarri pedagogikoetan eta extraliterarioetan sustatzen dela.

Bestalde, gaur egungo haur narrazioen munduan egiten diren egokitzapenak, bi multzo desberdinetan banatu daitezke: alde batetik, irakurketa bera eta testuen legibildadea eta ulermena errazteko asmoz zuzendurikoak; bestetik, egokitzapen tematikoa agertzen da, non gaiak haur irakurlearen preferentzi eta gustuei lotzeaz gain, gaien tratamenduan bertan zenbait moldaketa literario, moral eta pedagogiko sartzen dira, beti ere *zuzentasun politiko* delako hori eta arau hezitzaile orokorrak bermatuz.

Lehenengo egokitzapena era da, hain zuzen ere, testuen pobretasun formala eta estilistikoa dakarrena. Bigarrenak, aldiz, gaien tratamendu bigunak eta inozoak sortzen ditu, nolabaiteko zentzura inplizitioa eta izkutatua ezarritik.

Nire ikerketaren datu analitiko guztiak aztertu ondoren, hauek dira, ene ustez, sorkuntza literarioaren kalterako, egokitzapenaren izenean egiten diren gehiegikeriek dakartzaten eraginik latzenak.

**2. 90eko Hamarkadako haur narrazioek didaktikoak izaten jarraitzen dute. Borondate didaktikoa eta didaktismo esplizitua. Moralejatik baloreetan oinarritutako hezkuntzara.**

90. hamarkadako haur narrazioari dagokionez tinko mantendu daitekeen beste konklusio bat hau da: gaur egungo haur narrazioek, zentzu batean edo bestean, didaktikoak izaten jarraitzen dute, didaktismo esplizitua ere nabarmenki azalduz. Tarben WEINREICHek dioen bezala,

*Une partie importante de la littérature pour enfants est vendue aux écoles, c'est ainsi que les tendances pédagogiques dominantes influencent considérablement la littérature.* (PERROT, 1993: 96)

Zentzu berdinean, hona hemen Pierre BRUNOren hitzak:

*Entre ces deux extrêmes, une bonne part de la littérature destinée à la jeunesse sert principalement*

*à transmettre un savoir de manière pédagogique.*  
(PERROT, 1993: 55)

Beste iritzi asko aparte utziz, badirudi gaur egungo haur narrazioak, neurri haundi batean, narrazio didaktikotzat har litezkeela. Didaktismoaren ezaugarri hau bi iturri nagusitatik dator: alde batetik, ipuin klasiko eta tradiziozkoetatik eta, bestetik, hezkuntza eta pedagogiaren munduko influentziatik.

Jakina, gaur egungo haur narrazioak ez dira hain estuki moldatzen tradiziozko ipuin klasikoan didaktismora, baizik eta narrazio hauetan agertzen den didaktismoa, modernitateak ezartzen duen ideologiara egokitua dagoela. Guztiz adoz gaude Teresa COLOMERek dioenarekin:

*Parece más bien que la narrativa infantil y juvenil se resiste a abandonar el control de la interpretación moral de los acontecimientos relatados y se halla en una fase de búsqueda de nuevas fórmulas sancionadoras que no resulten tan lesivas para la calidad artística de las obras.* (COLOMER, 1998: 293)

Ezin da moralejaz hitz egin –behintzat ezin dugu hitz hori zentzu klasikoan erabili–, baina, aldi berean, ez dago ukatzerik gaur egungo haur narrazio gehienek balore moralak nahiz formalak isladatzen dituztela. Hori bai, gaur egungo narrazioetan agertzen diren balore moralak askoz ere erlatiboagoak dira.

Hau guztia kontuan hartuta, eta behar den gaurkotze prozesua onartuz, moraleja klasikotik baloreetan oinarritutako hezkuntza orokor batera pasatu ote garen galde genezake. Neurri haundi batean baietz esan daiteke. Beraz, gaur egungo haur narrazioak didaktikoak dira, narrazio hauek baloreetan oinarrituriko hezkuntzarekin eta *zuzentasun pedagogiko* izeneko horrekin erlazionaturiko *neodidaktismoa* planteatzen badute ere.

Ildo honetatik jarraituz, haur sorkuntza literarioari serioски eragiten dion beste faktore extraliterarioa aipatu daiteke: pedagogiaren ete hezkuntza munduaren eragina. Kritiko batzuek eragin kaltegarri hauek behin eta berriz seinatu dituz-



Luis Alonso

te. Xabier ETXANIZek, esaterako, zera dio:

Jakina, hezkuntza eta eskolarizazioarekiko harreman horrek «literatur» testuen pobretzea ekarri izan du, bestelako helburuen aurrean. Kasu hauetako askotan haur literatur lanen aurrean ez baina haur liburu arrunten aurrean aurkituko ginateke. (ETXANIZ, 1997: 82)

Gaur egungo haur narrazioak didaktikoak dira, eta didaktiko izate honek narrazioen kalitate literarioariri bera kalte egiten diola, argi uzten dute beste autore batzuek:

*Por experiencia propia diré que la mayoría de los intentos que conozco de instruir deleitando son dudosamente instructivos y deplorablemente nada deleitosos. El error, a mi juicio, de los partidarios de esta edificante actitud se basa en un olvido elemental, a saber: que en literatura lo único inapelable y duraderamente instructivo es el deleite mismo.* (SAVATER, 1988: 9)

Beste kritikoa askoren eritziz, hain ezaguna den *instruire en amusant* printzipioa garai guztietako haur literaturaren ezaugarri nabaria da, baita gaur egungo haur literaturarena ere:

*... parece que no es suficiente todavía que la literatura para los más jóvenes sirva sólo para pasárselo bien o para acrecentar la producción artística de un país; aún necesita un listado de efectos beneficiosos para poder existir. Para ello, se han mezclado preocupaciones pedagógicas, literarias y artísticas.* (OBIOLS, 1998: 24-25)

**3. Egokitzen printzipioa eta borondate didaktikoarekin batera doazen indargutziko edukin ideologiko eta sozialak. Gizarte modernoan mentalitateak ezarritako desideologizazioa ote?**

Ikuspuntu ideologiko batetik ikusita, eta ares-tian aipatu dugun bezala, haur narrazioetan agertzen diren gai eta mezu ideologikoak eta sozialak egokitze prozesu baten barne planteatzen dira. Egokitze prozesu honen ondorioz, gai eta mezu hauen esanahi ideologikoak nabarmen biguntzen eta uztutzen dira, ideologiatik didaktismo orokor



Luis Alonso

batera pasatzen. Haur literaturari buruz hitz egiten ari garenean, ideologia eta hezkuntza elkarrekin ibiltzen dira:

*Así pues, esa educación vinculada a la vida que necesariamente debe entrar en la escuela, encuentra en la literatura una forma de acercar los alumnos a determinados temas a los que no tiene acceso inmediato.* (OBIOLS, 1998: 32)

Zalantzarik gabe, egokitzapena eta didaktismoaren fenomenoek, gaur egungo haur narrazioetan hain present izanik, eduki ideologikoetatik eta sozialetatik, didaktismo global batera pasatze hau azaltzen dute. Honela, propioz eduki ideologikoak direnak, gaur egungo gizartearen mentalitateak onartzen dituen balore orokor eta neutroei buruzko predika aseptikoa bilakatzen dira. Ednir PERROTTik dioen bezala, egungo haur narrazioak eta literaturak ezin izan du bere sorre-  
ra didaktiko eta moralizantetik libre geratu:

*Si elle a pu cesser d'être moralisante, elle n'a pas cessé d'être instrumentale de s'occuper attentivement des aspects éthiques de l'éducation...* (PERROT, 1993: 60)

Aipatu dugun bezala, badirudi, ipuin klasikoan aintzinako moralina hura edota historian zehar zenbait une konkretu batzuetan haur narrazioetan sortu diren edozein totalitarismoaren dogma ideologikoak, gure mendebaldeko gizartearen mundu ikuspegiak ezartzen duen humanismo demokratiko eta sozial batez ordezkatzeko dira, eduki ideologikoen disoluzioa ekarri.

Azkenik, kritikoren batek proposatzen duenez, moraleja klasiko eta irolaren ordeztan, *zuzentasun politikoaren* printzipioak behin eta berriz agertzen zaizkigu gaur egungo haur narrazioetan:

*En nombre de la corrección política se defiende desde la prensa «la batalla para hacer que la literatura infantil sea políticamente aceptable para todos los sectores de la sociedad» en temas como el racismo, las clases sociales, el sexismo,...* (CERVERA BORRÁS, 1997: 77)



Luis Alonso

Nik egindako ikerketaren datuak kontuan hartuta, nire erabateko adostasuna adierazi behar dut CERVERA kritikariaren iritziarekin. Autore honek, gaur egungo haur narrazioetan ikus daitezkeen gehiegikeria pedagogistak aipatzeaz gain, gehiegikeria hauek dakartzaten ondorio latzak ere azpimarratzen ditu:

*La verdad es que nos encontraríamos a un paso de la manipulación del niño y de la instrumentalización de la literatura, actitudes que siempre hemos rechazado y combatido: ¿Será lícito ahora la recomendación de la intervención pedagógica en la Literatura Infantil?* (CERVERA BORRÁS, 1997: 117)

Gure gizarteak aniztasun ideologikoa onartzen du, dogma ideologikoak erlatibizatzen ditu, aldi bereko desideologizazio nabaria sortuz. Modu erraz baten azalduta, bere sorreratik gaur arte, haur literaturak marrazten duen itinerarioa honako hau izan liteke: iraganean, mentalitate kristau-burgesak ezarritako moraleja edo moralina erakutsiz, literatura *moral*a izan zen; XX. Mendean, zenbait momentutan, ideologi totalitario eta baztertzaile batzuen zerbitzura ageri da; gaur egun, haur literaturak, edozein ortodoxia ideologikoa baztertzen, mendebaldeko gizarte demokratikoen ertaineko klasearen ideologi kolektiboa mesprezatzen du, humanismoa, tolerantzia eta antzeko baloreak isladatuz. Espezialista batzuen ustez, ertaineko klasearen baloreak eta desideologizazioa izango liratake gaur egungo haur literaturaren ezugarri nagusienak:

*Según la sociología educativa puede decirse que fue en las clases medias profesionales donde se gestaron los valores sociales que caracterizan las sociedades actuales.* (COLOMER, 1999: 107)

**4. Hezkuntza sentimental, lagunkidetasuna, tolerantzia eta beste balore sozial batzuk. Gaur egungo bizimoduari buruzko kritika. Zenbait korrante ideologikoen ahuleria.**

Arestian esan dugun bezala, 90eko hamarkadako haur narrazioek klase ertain horren menta-



Luis Alonso


lidade moderno edo posmoderno isladatzen dute. Agertzen diren baloreen artean, heziketa sentimental eta humanista arlokoak aipatzeaz gain, lagunkidetasuna, tolerantzia edota gure gizarte postindustrial eta globalizatuetan agertzen diren bidegabekeriak eta kontraesanak salatzen dituzten kritika bigunak ere azpimarratu beharko genituzke.

Gaur egungo haur narrazioetan agertzen den salaketa soziala biguna eta gozoa, hots, salaketa generikoa, azalekoa eta atsegina dela esaten duen ikerketaren bat baino gehiagorekin ados nago:

*Por otra parte, en la mayoría de obras se procede a una defensa de valores genéricos –la libertad, la democracia– que a menudo puede caracterizarse como denuncia «de mínimos» en términos democráticos.* (COLOMER, 1999: 119)

Azken korrante ideologikoen artean, batzuk nabarmen ahuldu diren bitartean, beste batzuek, aldiz, indarrean dira. Sexismoa salatzen zuen feminismoarekin erlazionatzen diren eduki ideologikoak, adibidez, oso gutxitan agertzen dira eta, agertzen direnean, oso modu makal eta ahulean izaten da. Haur literaturaren munduan feminismoa, korrante ideologiko bezala, ia desagertzeaz dagoela esan genezake.

Balore ekologikoak, aldiz, indarrez mantentzen dira gaur egungo haur narrazioetan. Ekologismoarekin batera, eta arestian esan dugun bezala, gizartean agertzen diren bidegabekeriaren, gatazken eta tentsio guztien salaketa maiz azaltzen da. Legez kanpokoa emigrazioa, pobrezia, arrazake-



Luis Alonso

ria eta xenofobia, intolerantzia, delinkuentzia, marginazioa, drogak eta abarreko gaiak aipa genituzke adibide gisa.

Nere ikerketaren konklusioek, maila ideologiko honetan, beste ikerketa eta espezialista batzuren konklusio nagusienak baieztatzen dituzte: gaur egungo haur literaturak pautak ideologiko argiak eskaintzen ditu, gizarte modernoaren ideologiak ontzat ematen duen zenbait balore islaturik. Gemma LLUCHek, psikoliteraturari buruz hitz egiten duenean aipatzen dituen ezaugarriak gaur egungo haur literatura osoarentzat ere baliozkoak dira:

*Posiblemente la psicoliteratura sea el género de la literatura infantil y juvenil que de una manera más explícita y directa proponga una determinada ideología. Una ideología feminista, antirracista, liberal, ecologista, respetuosa con la diversidad, democrática y, sobre todo, positiva, que es explicitada por las propias editoriales a través de catálogos o de la información de la solapa, y por los autores, a través del narrador, del tema o de los personajes.* (LLUCH,

1996: 25)

90eko hamarkadako gizarteak gero eta globalizatuago den bizimoduari, ekonomiari eta kulturari dagozkion bidegabekeri, desoreka eta konbententzia aldetitako arazoei aurre egiteko beharrean daude. Honexegatik, 90eko hamarkadako haur narrazioetan ere, lehen aipatu ditugun eduki ideologikoak (inmigrazioa, gizarte multikulturalaren tentsioak, xenofobia, marginazioa,...)



behin eta berriz azaltzen dira. Zentzu honetan, oso adierazgarriak dira TERESA COLOMERen hitzak:

*Durante las décadas de los setenta y ochenta la mirada sobre las otras culturas se dirigió a lo lejos... Durante la década de los noventa, sin embargo, la multiculturalidad ha emergido como un fenómeno interno de las sociedades occidentales debido a los intensos flujos migratorios provocados por las desigualdades entre el primer y el tercer mundo. Las literaturas de las zonas de inmigración europea están introduciendo, pues, nuevos temas sobre la necesidad de tolerancia e integración social.* (COLOMER, 1999: 121)

Haur literaturari buruzko azken ikerketa batzuetan, haurrrentzako liburuetan agertzen den ideologia, *maiatza frantziarrak* eta 60ko hamarkadako Amerikako mugimendu sozialek sortu zituzten balore eta printzipio aperturista eta progresistekin erlazionatua dagoela esaten da. Mugimendu sozial eta kultural hauek sortu zuten iraultza kulturala—benetako *kontrakultura* askorentzako—, geure egitura sozialetan, modernidadearen mentalitate kolektiboan eta espresio artistiko ete literarioetan, islatzen da eta, nola ez, haur literaturan ere bai.

Egia da *irudimena poterera* hain famatua izan zen lema hura, sorkuntza literarioan nahiz haur literaturan ikus daitekeela. Irudimenaren eta fantasiaren balio handitzea, bizimoduaren eta artearen kontzeptu ludiko baten aldarrikapena eta alor guztietako subertsio joera, ideologia eta arte mai-



Luis Alonso

lan modernidadeak eratzen duen herentzi ideologiko honen ezauzgarri nagusienak izango lirateke. Hauxe da, hain zuzen ere, COLOMERen 80eko hamarkadako haur narrazioei buruzko gogoeta:

*Su extensión a los libros infantiles llevó a los autores surgidos del «mayo del 68» francés —por utilizar una imagen sintética del rechazo cultural hacia los valores anteriores producido en esa época— por, una parte, a reaccionar combativamente contra las corrientes realistas que habían predominado en el arte desde la posguerra mundial, por otra a cuestionar la forma de promocionar los valores cívicos y educativos, especialmente propia de la década de los sesenta.* (COLOMER, 1999: 107-108)

Hala ere, *68ko Maiatzari* hain estu lotzen zaizkion interpretazio sozioliterario hauekin ez gaude guztiz conforme. Mugimendu ideologiko eta kultural honen eraginak gure gizartearen mentalitatea aldatu zuela agerikoa bada ere, gure ikerketaren konklusioen arabera, 90eko hamarkadako haur literaturari dagokionez, eta 70eko eta 80eko hamarkadekin konparatuta, eragin hori ez da hain nabaria eta hain indartsua izan. 60koarekin konparatuta, 90eko hamarkadan gure bizimoduan eta gure mentalitatean izandako aldaketak ez dira gutxi izan. Gaur egungo gizartea askoz ere globalizatuagoa eta materialistagoa, lehiakorragoa eta hedonistagoa, desideologizatuagoa eta utopietan gutxiago sinisten duena da.

Hau guztia kontuan hartuta, 60ko hamarkadako mugimendu kultural haiek gaur egun daukaten benetako eragina norainokoa ote den zalantzan jarriko genuke. Janer MANILAREN baieztapena geurea egiten dugu. Kritikalari honek *maiatza frantziarraren* eragina egungo pentsamendu pedagogikoarekin lotzen du eta, geure ustez, berak esandakoa ezin hobeto doakie 90eko hamarkadako haur narrazioei:

*No es fácil dilucidar, ni siquiera hoy, hasta qué punto la efervescencia de aquel movimiento estudiantil que estalló en las universidades parisinas en el mes de mayo del 1968, puede haber penetrado el pensamiento pedagógico de nuestro tiempo.* (JANER MANILA, 1989: 11)

Geure eritziz, 90eko hamarkadan gizartea, artea, literatura eta, jakina, haur literatura, pisu handia duten bi fenomeno konkretuei aurre egiteko beharrean aurkitzen dira: globalizazioari eta desideologizazioari. Gero ete urrunago geratzen den 68ko maiatzaren mezuak eta proposamen ideologikoak desegiten ari dira, balore generikoe-tan eta behinbehinekoetan bilakatuz. Gaur egungo haur narrazioek –beharbada gaur egungo arteak eta literaturak ere bai–, beheranzko prozesua islatzen dute, prozesu honetan, eduki ideologiko haiek gero eta ahulagoak izanik. Aldiz, 60etako iraultza kulturalaren geratzen diren azalezko hondakin estetikoak, barroismo, esperimendu eta joku formalen aldetikako joeratan ikus daitezke. Azken batean, arte eta literaturaren historian zehar, hainbat aldiz gertatu ohi den bezala, 60etako mugimendu *kontrakultural* huraren mezu etikoak, estetika hutsean geratu dira, baita haur literaturaren kasuan ere.

#### AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

- BRUNO, P. «Le système des goûts dans la littérature destinée à la jeunesse», in PERROT, J. (1993): *Culture, texte et jeune lecteur*. Paris: Presses Universitaires de Nancy, pp. 51-56.
- CERVERA BORRÁS, J. (1997): *La creación literaria para niños*. Bilbao: Mensajero.
- COLOMER, T. (1998): *La formación del lector literario. Narrativa infantil y juvenil actual*. Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez.
- COLOMER, T. (1999): *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Barcelona: Síntesis.
- ETXANIZ, X. (1997b): *Haur eta gazte literatura*. Iruña: Pamiela.
- JANER MANILA, G. (1995): *Literatura infantil i experiència cognitiva*. Barcelona: Pirene.
- LLUCH, G. (1996): *La literatura de adolescentes: la psicoliteratura*. *Textos 9*, pp. 21-28.
- MORENO VERDULLA, A. (1998): *Literatura infantil*. Cádiz: Universidad de Cádiz.
- OBOLS SUARI, N. (1998): *Cómo desarrollar los valores a partir de la literatura*. Barcelona: Ceac.
- PERROT, J. (1993): *Culture, texte et jeune lecteur*. Paris: Presse Universitaires de Nancy.
- PERROTTI, E. «Les échos de la “querelle”: Littérature d'enfance, critique, éthique et esthétique», in PERROT, J. (1993): *Culture. Texte et jeune lecteur*. Paris: Presses Universitaires de Nancy, pp. 57-61.
- RUIZ HUICI, F. J. (2002): *Análisis de narraciones infantiles para niños de 6-12 años, escritas en castellano entre 1990-98*. Bilbao: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- SAVATER, F. (1988): «Lo que enseñan los cuentos», *CLIJ*, 8, pp. 8-13.
- TUCKER, N. (1985): *El niño y el libro*. México: Fondo de Cultura Económica.
- WEINREICH, T. «Les principales théories de la littérature pour enfants dans les pays industrialisés», in PERROT, J. (1993): *Culture, texte et jeune lecteur*. Paris: Presses Universitaires de Nancy, pp. 95-100.

# «Nik ez dakit marrazten!»

IÑAKI MARTINENA «MATTIN»

Ipuin ilustrazio tailerrak Bakioko Udal Liburutegian



Abuztuko egun bero eta sargoritsu batean heldu nintzen Bizkaiko itsasertze-ko herri koskor horretara tailerrak emateko asmoz, bertako Udal Liburutegikoek deituta. Hantxe zeuden neska mutilak atarian, nire zain, jakin-minez eta marrazteko irrikan. «Kontxo, horra nire ikasleak!» pentsatu nuen nire artean, kopetako izerdia lehortzen nuen bitartean. Guztira hamar bat ikasle, 8, 9 eta 10 urtekoak.

Balbina nire bizikleta horman utzi ostean, liburutegia atondu genuen, tailerra eman ahal izateko: mahaiak elkartu, fotokopiak egin, margoak prestatu eta abar.

Aitortu behar dizuet «tailerra» hitzak, barregura sortarazten didala, auto, gurpilak eta torlojuak ekartzen baitizkit burura. Koipez zikindutako konponketa garajea, alegia.

«Aita baten azken hitza» herri ipuina aukeratu dugu irudiz janzteko. Denon artean ipuina irakurri dugu, gozo-gozo, dastatuz, barneratuz. Horretan ahalegin-du naiz bereziki, kontaketa behar den bezala barneratzen hain zuzen.

## ↪ Hizpide ↪

«Nik ez dakit marrazten!» hasi zait kexuka baten bat. Ez nau harritu, izan ere, hainbat alditan entzun izan dut esaldi ditzosozkoa.

«Denok gara marrazteko gai, barrenak askatzean datza kontu guztia» esanez lasaitu ditut, nolabait. Ipuinaren pasarterik gustuko edo adierazgarrienak azpimarratu ondoren, arkatza lagun, zirriborroak egiten hasi gara. «Gustura barneratu al dute ipuina?» galdetu diot nire buruari. Xabier, Jokin eta Uxuek, isil isilik, azkar asko marrazten hasi dira. Oierrek ez du deus ere ulertu eta niri deika hasi zait, zalantzati. Jasek arkatza zorrozten dihardu oraindik. Paul eta Alex zalapartaka ari dira arkatzak direla eta ez direla.

Borragoma, papera eta arkatza artean pasa zaizkit oharkabean bi orduak. Harrigarria baina inortxok ere ez du marrazki bizidun japoniarretako pertsonaiarik marraztu. Zorionez oraindik irudimen grafikoa ez zaigu guztiz agortu.

«Bihar arte Mattin!, bihar arte!» esanez joan dira ilustratzailetxoak. Pixka bat akiturik baina pozik amaitu dut lehen tailer eguna. Ipuina bideratuta dute guztiek.

Biharamunean, ikasle bakoitzak egindako bost marrazkiak koloreztatu behar zituzten. Hiru aukera eman dizkiet: argizariak, errotulagailuak edota tenperak. Bartzuk errotulagailu dotoreak nahiago dituzte. Beste batzuk berriz tenperak nahiago dituzte, azkarrago margotzen dutelako

eta uraren eraginez irudi «artistikoagoa» delako errotulagailua baino. Gainera, errotulagailua berehala ahitzen da.

«Gorria eta horia nahastuz, laranja dugu. Horia eta urdina, berdea edo muskerra...» koloreen nolakotasuna azaldu diet arbelen. Koloreen munduak guztiz txoratu ditu ikasleak.

Paul eta Alex berriro borrokan hasi dira. «Nik ez dakit marrazten!» bota du negarti baten batek. «Ez kezkatu, garrantzitsuena paperari beldurra kentzea da!» esan diot Alexi. Oierrek tenperaz mahai guztia zipriztindu du. Gozatu ederra hartu du!

Arratsaldeko zazpiak. Bi orduak pasa dira. Bukatu dugu lantegia. Guztiek etxera eramantuzte marrazkiak. Hurrengo urtean berriro elkartuko al gara?



## Kritikaren aldarria

Ondoren eskaintzen dugun adierazpena HGLren inguruko kezkak dituzten Kataluniako hogeitaz lagunen bileraren ondorioa da. Faristol aldizkariaren 46. zenbakitik jaso (Consell Català del Llibre per a Infants i Joves, 2003ko uztaila) eta oso interesgarria delakoan euskaratu egin dugu. Poza ematen du bakarrik ez gaudela jakiteak.



Luis Alonso

*F*aristol aldizkariako kritikoen taldeak, Consell Català del Llibre per a Infants i Joves delakoaren eraginez egindako Haur eta Gazte Liburuen Kritikaren I. Jardunaldian 2003ko maiatzaren 31n Matadepera-n bilduta, honako puntu hauek adierazi nahi ditu:

## ↪ Hizpide ↪

- Haur eta gazteentzako liburuak zirkuitu didaktikoak gainditzen dituen kultur produktua da. Beraz, HGLren kritika eta zabalkundea eskola-esparrutik harantzagokoa da, eta bere helburua etorkizuneko irakurlea kultur testuinguruko pertsona gisa heztea ahalbidetuko duten kualitate literario eta grafikoak zabaltzea da.

- Irakurtzen ikastea ez da zeinu alfabetikoak deskodifikatzea soilik, irakurtzearen onura zeregin mekaniko hutsetik harantzago doa. Horregatik, honekin zerikusia duten arlo guztietako profesionalak prestatzeko eta beste ekintza batzuk egiteko diseinu espezifikoak exijitzen ditugu, irakurleak adoretzeko helburua bete ahal izateko.

- Formatzen ari den irakurleak irudiaren beharra izan ohi du kontakizuna behar bezala ulertzeko. Hauxe eskatzen dugu: argitaldari, idazle eta irudigileek album ilustratu bat argitaratu behar dutenean, kontuan har dezatela irakurleak osotasunean jasotzen duela emaitza, ezabatu ezinezko osagaiez egindako narrazio polifoniko gisa, osagai horietatik edozein kentzeak liburuari zein irakurleari kalte egiten diolako.

- Haur eta gazte literatura gure kulturaren ezinbesteko osagaia dela gogoan izanik, exijitu egiten dugu, gutxienez, katalanezko haur eta gazte

liburuaren Dokumentazio eta Informazio Gune bat sortzea, gure literaturaren historiarako garrantzitsuak diren dokumentuak gordetzeko, eta arloko ikerketak bultzatu eta material horiek aztertu, zabaldu eta elkartrukatzeko helburuz.

- Aipatutako Dokumentazio Gune horretan esku hartu behar dute, une honetatik bertatik, arloan eskumenak dituzten administrazio guztiek, irakurketaren garrantzia alderdi guztietatik iker-tu eta zabaltzeko politikei ekiteko helburuz.

- Eskatzen dugu, orobat, literatur kritika kalitate-irizpideetan oinarritzea, kritika hori azken emaitzaren hobekuntza kualitatiborako funtsezko lanabes gisa ulerturik, literatura produzitzen dutenek zein hartzaileek aldarrikatutako berezko funtzioak dituela.

- Azkenik, adierazi nahi dugu, nahiz eta haur eta gazte literaturak Kataluniako liburuaren sektorearen barruan garrantzi handia izan, argitalpen guztien %30 baino gehiagokoa, kultur produktu horrek hedabideetan duen zabalkundea oso urria dela eta, ondorioz, irakurle gazteak orientatzeko ardura dutenen artean (gurasoak, irakasleak, liburuazainak, liburu saltzaileak, eta abar) informazio-falta handia eragiten da.



Luis Alonso